

haiek suntsitu eta txikizioak egiteko kezka handirik gabe. Horretarako, Austerrek azaltzen duenez, 16 urtetik gorako gizonezkoek osatutako miliziak sortzen zizuten, eta pertsona bakoitzak moskete bat eskuratu behar zuten. Gainera, derrigoruta zeuden milizian aritzera, zahartu eta fusil bat eramateko gaitasuna galdu bitartean behintzat. «Kolonok uste zuten mehatxatuak zeudela, eta etsai komunaren aurka defenditzeko elkartzen ez baziren, arriskuan egongo zen euren hirien eta etxebizitzaren etorkizuna, baita sortzen ari zirela imajinatzen zuten Jerusalem Berria ere».

Estatubatuar bakoitzak arma bat izateko eskubidea duela dioen ideia urte haietan finkatu zen, eta 1783an independentzia lortu ostean idatzitako konstituzioaren bigarren zuzenketan jarri zen paper gainean: «Estatu aske baten segurtasunerako ondo antolatutako milizia bat beharrezkoa izanik, ez da urratuko herriak armak edukitzeko eta eramateko duen eskubidea». Esaldi horren interpretazio ezberdinak armak izateko eskubidearen inguruko eztabaida guztietan azaleratu dira azken hamarkadetan, eta AEBetan sarraski bat dagoen aldirio azaltzen dira.

Bloodbath Nation armek AEBetan duten pisuari eta horrek berak herrialdean izan dituen ondorioei buruzko saiakera hutsa izan zitekeen. Baina Austerren beste obra askotan bezala –fikziozkoak nahiz ez-fikziozkoak–, egilearen beraren bizipenek ere zeharkatzen dute liburua. Hala, kontatzen du 1950eko hamarkadan, haur estatubatuar guztiak bezala, jostailuzko pistolekin jolasten hazi zela, telebistan ematen zizuten westernetako cowboyak imitatu nahian. Baina garai hartan jakin zuten, halaber, indarkeria oso gertu egon zitekeela ere. Bere amonak aitona hil zuten Austerren aitak 6 urte besterik ez zuela.

Leku hutsak

Bloodbath Nation-en bildutako zuri-beltzeko argazkietan, berriz, azken bi hamarkadetan AEBetan izan diren sarraskietako lekuak katalogatu ditu Ostranderrak. Leku hutsak dira guztiak: merkatal guneak, kafetegiak, ikastetxeak, elizak, meskitak, sinagogak eta aparkalekuak, besteak beste. Datu hutsak biltzen dituzten argazki oinak besterik ez: lekua, data, hildako eta zauritu kopurua, gaur egungo egoera eta erabilera. Jenderik ez da azaltzen haietan.

Sua sabelean

Irati Majuelo

L eak ez daki gauza batzuen berri, baina beste batzuen berri bai, badauki. Badaki zer den laukaleko herri batean bizitzea, badaki nora doazen basora sartzen diren txakurrak, badaki ahizpak min fisikoarekin soilik egin dezakeela negar. Eta gauza horiez egiten du hitz, grinatsu eta kalakari, eta ez dakienez, ez da mintzatzzen.

Bikainki harilkatutako bazarriketa proposatzen du Elisa Levi idazleak bere bigarren eleberrian, *Alberdaniak* euskaratu duen honetan. Protagonista 19 urteko neska gaztea da, munduaren azken puntan dagoen herri txiki bateko biztanlea. Basoan sartzeaz zela geldiarazi du gizon bat (basora sartzen dena ez baita sekulan itzultzen), eta galdu

duen txakurrari itxaron bitartean, berarekin esertzera gonbidatu du, baita entzutera ere, isilik egoten ez dakiten horietarikoa baita Lea. Horrela hasten da monologo itxura hartzen duen elkarriketa, protagonistak gizonari egiten baitio hitz, baina lehenengo eta bigarren pertsona sotilki



'Nik ez dakit beste gauza batzuen berri'

Idazlea: Elisa Levi. **Itzultzailea:** Irene Aldasoro. **Argitaletxea:** Alberdania.

tartekatuz, Lea irakurleari ari zaio iradokitzen baitu eleberririk.

Txikia eta itogarria da Learen herria, espazioari zein bizi-espekatibei dagokienez muga estuak dituena. Herriaren ertz batean dago basoa, jendea sartu ahala irensten duena, eta handik gertu Herri Handia, Hiria eta Itsasoa, urrun ez egonagatik beste mundu batekoak diruditenak. Horregatik, Learen unibertsoa herrira mugatzen da, eta horrek ezinezona sortzen dio, eta sabelean sua pizten. Izan ere, herriaren denbora geldo igarotzen da, atmosfera dentsoa da, eta guztia, usadioak, injustiziak, herrak eta bereziki minak, eternalki luzatzen da. Hala, Levik ihes egiten dio landa eremuaren irudikapen idilikoari, eta era gordinean erakusten du zer den instituzioek baztertutako herri bat: ekaitzek erasotzean inkomunikatuta geratzen dena, anbulatortatik ez duena, kanpoko jendeak pasieran soilik ezagutzen duena. Are kritika egiten dio hiritarrek landa erromantizatze duen joerari, Learen hitzetan, jendeak ez baitaki «baina herri txikietan behi-

kakaren usaina egoten da, eta animalia hil pilatuena, eta belau-naldiz belaualdi pasatzen diren beldurrarena eta herrarena eta asperdurarena eta minena eta gorrotoena».

Era berean, herria edozer gerta daitekeen eremu bezala aurkezten da. Hau da, denboraren geldotasunean deus ere jazotzen ez den espazio izanik, edozer suert daiteke bertan, baita errealtitatearen mugak zeharkatzen dituzten gertaerak ere. Alde horretatik, idazleak errerealismo magikoari keinu egiten dio zenbaitetan, eta errealtatearen eta irrealaren denaren mugan kokatzen du sarri herritarren kosmobisioa. Leviren estiloarekin du horrek zerikusi zuzena, idazkera poetikoa eta gordintasuna batzen baititu, eta nahasketa garratz bezain samur horretan osatzen da Learen ahotsa. Neska gaztearen hizketak txirikorda baten antzera lotzen ditu kontakizun ugariak, pertsonaia bitxien anekdotak zein bere sabeletik jaiotzen diren suak, solte geratzera dioan edozein xerlo maisuki batuz, behin eta berriz, txakurra galdu zaion gizonarekin duen elkarriketara.

Usnan

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Z er pentsatua eman beharko liguke euskal sorkuntzek bizi duten paradoxa, guztiak *totum revolutum* batean agertzen baitzaizkigu, kalitatearen iragazkitik pasatu gabe. Ematen du bozgorailu eragin-korrek falta ditugula –itxuraz masa kritikorik ez duen kultura baten ajea dena–, *niri gustatzen zait*-aren diktaduratik askatuko gintuzkeen irakurle jantzien argudioak ozen aditu ditzagun.

Ez gaizki pentsa, ez naiz nire burua goratzen ari (ez zehazki), nabarmendu nahi dudana da literatura sistema osasuntsuetan izaten diren iritzi kualifikatuak, gurean zarata artean galtezen zaizkigula.

Adibidez, *Kiratsa* album ilustratuaren ontasunak nabarmenduko dizkiguna, esan ez

<testu ezin egokiagoa> dela album baterako, laburra da errimatu dela, hizkuntza aberatsean eraikia eta onomatopeia ugari dituena; eta «ilus-trazioak dotoreak» direla, «sofistikatuak», testuarekin «goi mailako uztarketa» egiten dutela. Halaxe nabarmendu du baitzuen Etxepare album ilustratuaren sariketako tribuna-lak, ez merezi duen oihartzunarekin ordea, 2022an aurkeztutakoaren arteko album onenaren saria eman ziotenean.



'Kiratsa'

Idazlea: Eider Adelex. **Ilustratzailea:** Iban Illaramendi. **Argitaletxea:** Pamiela.

Basoetako suak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

S alaketa asmo garbia duen albuma da, Amazoniako oihanetan 2019an zehar izandako hilabete luzeetako suteek sortutako larriduratik abiatu dena, egileak, Fabiola Anchorenak, aitoritzen digunez liburua amaietarako hitzatzearan.

Hauk irakurtzeke, izenburu eta azalarekin hasten den kontakizunak, iluntasunean dagoen oihanean kokatzen gaitu, animalia senidetuen artean (ikus jaguarraren gaineko armadilloa). Orrialdeak aurrera eginda, harritutako animaliak antzematen ditugu iluntasunean, aurre-raxeagoko orrialdean laranja koloreko argitasunerantz doaznak, aurrerago handik iheska, berotu ez ezik erre ere egiten duelako laranja bizi hark, ezaguna ez zaien su hark; eta lau

aieketatik kiskaltzen duen harritatik ihes egiten du ahal duenak, harik eta amaieran oihana argitsu den aldera iristen diren arte (jaguarra bai, armadilloa ez).

Testu gutxi du, animalia baten ahotsa duena (jaguarra?), eta ez da beharrezkoa.

Irudien gaitasun narratiboa nahikoa da istorio honen ingurumari guztiak, emozio guztiak, hausnarketa guztiak adierazteko.

2022ko Album irudidunentzako Nazioarteko XV. Compostela Saria lehiaketaren irabazlea da.



'Eguna argitzeko zain'

Idazlea: Fabiola Anchorena. **Ilustratzailea:** Fabiola Anchorena. **Itzultzailea:** Fernando Rey. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.